

laris D. José Antonio Jiuregui y D. Santos Uranga; y los vocales del Consistorio.

Todos los concursantes ejecutaron como obra impuesta, la preciosa alborada «Joŕechu ta Marichu», del Sr. Telleria, compuesta de zortziko, contrapas y *ariñ-ariñ*, y premiada en el Concurso musical; y otra obra además de libre elección.

Á pesar del escaso tiempo que para estudiar la obra impuesta, pudieron disponer los concursantes, todos ellos dieron acertada interpretación, distinguiéndose en el manejo del difícil instrumento, al ejecutar las obras de libre elección, en que realizaron verdaderos primores.

De conformidad con el dictamen emitido por el Jurado musical, se hizo la siguiente distribución de premios :

Premio anunciado (100 pesetas), á la banda de tamborileros de Zumaya, que dirige D. Leandro Zavala.

Accesit (50 pesetas), á la de Zumarraga, dirigida por D. Fermín Azpiazu.

Dos menciones honoríficas (á 25 pesetas), á las de Villafranca y Villabona, dirigidas respectivamente por D. Felipe de Ocariz y D. Bonifacio Lazcurain.

Hemos de unir nuestro aplauso á las calurosas salvas con que el público premió á los simpáticos y estudiosos chistularis.

SESIONES DE BERSOLARIS

Tanto por la tarde como por la noche, los ingeniosos improvisadores vascos, dirigidos por el veterano miembro del Consistorio Sr. Zapirain, hicieron gala de su fecunda imaginación y de su gracia inimitable.

Nada decimos de la fiesta dramática, porque nuestro constante amigo y colaborador Sr. Uranga, se encargará, según costumbre, de esta labor.

EXPOSICIÓN DE PINTURAS

Causas ajenas á nuestro deseo y á pesar de las gestiones practicadas por el Consistorio, no pudo inaugurarse el clásico día de Santo Tomás la Exposición de los cuadros presentados al Concurso pictórico. Resueltas, sin embargo, las dificultades, se habrá inaugurado antes de la aparición de este número, y de su éxito podremos ocuparnos en el siguiente.

DONE TOMAS EGUNA

DONE Tomas eguna osoro alaitasun aundiyan jaitua izan da aurten, Euskaldun Fedea lagundi, eta Euskal itz jostaldien batzarrearen aldetik.

Goiz goizetik igartzen zan Donosti eder besterik ez bezelako uri ontan, poztasun biyotzetikako gain gañekua, uda berriyan choriyak ka-bitintzan bañon ere aundiyagua.

Erritar, eta gañera oneratu ziran erri chikitar auzo, erriko eta baserritarak, barrundatu zutenian zerbait gauza berriren bat gertatzen zala, egun, mutiko eta neña koñkorak alaitzen dituen ontan, pizkortu ziran osoro, eta jarri ziran, aurrak jai egun batian oñetako berriyak jazten dituztenian bañon poz aundiyaguaren mendian.

Nola ez: ¿baldiñ egun ontan ikusi bear bazuten. oraindano inon, inork ikusi gabeko jai aldiya?

Non ikusi dan, ¿esango aldit norbaitek, euskal jai jatorragorik, Donostiyan Done Tomas arratsaldean aurten ikusi dan baño? Etzait iruditzen, zergatik gure aurrekuak ere goyuan ez daukaten jai aldiya izan da, chistulariyan gai neurtzera erakartzeakin.

Bein baño geyagotan aipatu detan egunean, chistulariyan aurretik biderakusle zijuan gizon bizar churi belch dun bat, uri ontako jauregi apain, eta ederren ondeki lurrean jayo, azi, eta bizi dana, eta Marzelino Soroa jaunaren jostiruditar ikasle zintzo Toribio Alzaga jauna.

Au irichi zanerako chakurchuloko aurrera chistulariyan atzetik zitubela euskal doñu zar ederrak joaz, agertu zan poz lerdia zeriyoala karrikagorik nagusiko mukan, euskal gauza zarren agerdari gain gañeko Adrian Loyarte jauna, zirudiyelarik biyotzaren aginde atsegintzuz, zebillela dantzan, garte zoro bat oi dan bezela.

Erri barrenago berriz jostirudiko atean, ikusi genituben, Joakin Muñoz Baroja, eta Migel Salaberria, Euskal itz jostaldien Batzar jaunak, arrera onbat egin nabez chistulariyan sai zeudenak.

Bide guztiyan etzan beste galdeerarik aditzen. ¿Nori bururatu zayo aurtan, jai aldi eder au ezkeintzia Done Tomas-i? Onen erantzueran dago Donostiyako Euskal itz jostaldien Batzarrean, eta Euskaldun Fedearenian; oek dira Ama Euskera ongiyena jaitzen dutenak; baldiñ egun ortan begira egon baziran, Minterola, Arzak, Otaegi, Artola Ramon, Arrese Beitia, eta beste gure aurreko aita maite geyago, esango zuten; *seme onak badiñkiagu, eta egon gintezkek ezereñ kezka gabe.*

Donosti zarraren izenakiñ ezagutzen degun ayesako karrika guztiyak bete ziran jendez, Done Tomas arratsaldeko iru t'erdietan, chistulariyan igarotze atsegingarriya ikusteko asmoan; eta, ¿iñork ikusi ote du ainbesterañoko poz arpegirik agertzen, euskal zale artekorik iñor, beste edozer jai aldirekin?

Nik uste det, ez nezakiela utsegiñ ezetz esanarekin.

Erri chikitar guztiyak Donostiratu ziran egun ortan, euskal jayaren usaira, euliya gozotaraten dan bezela.

Au guztiya orla dalarik, euskal jai bikañ onen egilliai, zori on luzazarokuak oparik, guazen polliki polliki, antzokidaren jai aldira.

Antzokiko atariyan zегuen Euskaldun Fedea, Euskal itz jostaldien Batzarrea-ren zai, apaizak elizan beren apezpikuari egiten diyoten ongiatorriya bañon aundiyagua egiteko; bada eskumazteakin (1) sendoki, ro korapillo gogorrez lotuak arki dira elkarri gaur, Euskaldun Fedea-eta Euskal itz jostaldien Batzarrea.

Antzokiko jai aldiyak asiya izar zuben, arratsaldeko iru t'erdietan, arrabetariyan oskintzarekin; eskuta zapiya goratzeakin bat, agertu zan iruditegiyan, Felipe Kasal, *Aritzaren zumo gozua*, izentzat daramakiyan jostirudiaren gayak ezagutzera emanik, Prašku artzayaren antzera guztiz maisutasun aundiyan.

Oni agertu zitzaion urrena, Domingo Andonegi, Migel Martiñ-en antzera, berekin batera zerakarkiyela Ramon Gelbenzu (*Pello*); irurak jardun ziran elkar izketan chit mallaz goiturik, beren bizi guztiyan ontan sayatzen diranak beziñ ongi. Eta, ¿non usten det, edo norako, Ramon Echebeste, Martiñ-en irudiyan sayo bakarrarekin aiñ malla goitsuan jardun zana? Aurtengo sayua ona egindu, eta opa diyoizat chalo ugari eta garai onekuak. Jostirudiagatik, ez nerake ezer esan, zer-

(1) Esposas.

gatik dan nerea; eta nik egindako gauza guztiyak badakit gai urriyeta-kuak dirala; badakit ere, antzokiyan izan ziranak barkatuko diratela, ikusirik nigan, euskaraganako borondatia bakarrik. Ortik aurrera zer eska lezayoke bizar epalle sarpachu bati?

Orain, zer dator? Ai bai, bai; chistulariyan bilkidan Batzar jauntzat aukeraz izendatuak aurkestu ziran iruditegiyan, Miguel Salaberria, Toribio Alzaga jaunak, au goarpelari, eta lenengoa Euskal itz jostaldiaren Batzar-buru ordekoa, eta Adrian Loyarte jauna, bilguma ontako Batzar jauna.

Oekin batian eñeri ziran chistulariyan gai neurketako epaia eman zezar, Luis Zapiain jauna Artzai onaren elizako acholari edo organista, Telleria jauna, chistulariyan doñu egintzan lenengo sariya aurtengo indar neurtzan irabazi duben Ondarrabiko acholariya, Jose Antonio Jauregi eta Santos Uranga jaunak, Errenteriko eta Pasai Anchoko chistulari askotan sarituak izan diranak.

Indar neurtze ontarako aurkestu ziran antzokiko iruditegiyan, Zumayako, Zumarragako, Billafranka-ko eta Billabonako chistulariayak, guztiyak egiñik chit jardun aldi gain gañekua, eta sariyak eman zitzaizten, Zumayakua-ri lenengua, bigarrena, Zumarragakua-ri, eta aldeera bana Billafrankako eta Billabonakoari, irabazirik gañera jendeakiko chalo aundiyak. Aurrera mutillak gerora ere, bidez erdiyan gelditu gabe.

Ondorengo ager aldiya egin zuten iruditegira, Pepe Artola, Federiko Larman, Felipe Kasal eta Ramon Gelbenzuk *Abek istillubak* izentzat daramakiyan jostirudi pollitarekiñ; guztiyak egiñik sayo chit bikañak eta jendeari eragiñazirik, par eta algara ugariyak, beti oituratu izan duten bezela.

Gero beren chandaz irten ziran oyek utzik utzitako lekua betetzera, Pello Errota, Chirrita eta Jose Zapiain jaunak, au, aldameneko laguntzat Jose Marino Arrieta Euskaldun Fedea-ko Batzar buru edo Dianagusia, eta beste oroitzen ez naizen bat arturik. Oek eman ziyoten arratsaldeko jai aldiyari bukaera chalo aundipean, eta aldegin genduen antzokitik, berriro arratseko zortzi t'erdietan biurtzeko elkarri itzak emanaz.

Arratseko jai aldirako, eguadiako amabiyak baño len chartel saltza, lliak ipiñi zuten ingi mutur bat esanaz, «Ez dago chartelik». ¡Zer atse-gingarriya dan albiñtau, euskal zale guztiyentzat! Lau orlako aundiyago izan bazan ere antzokiya, uste det beteko zala tontor tontorreraño.

Begiratu nuben antzoki guztiyaren zabalera osora, eta an ikusi nituben Manuel Lizarriturry, Joakin Lizasoain, Karlos Echeberria, Luis Ayestaran, Manteoko gaiñodiko osakiñ gaztea; Artola, Uranga eta Gurmendi jaunen sendiyak, eta beste asko, gogoan ez dauzkadanak.

Jakiña dan bezela, asiyera eman ziyon arratseko jai aldiyari, arrabetaryien oskintzak; gero eskutazapiya alchatu zanean, agertu zan irudigiyen Euskal itz jostaldien Batzarrea aurtengo, izkribalari, musikalari, pintatzalle eta antzeztalariyen indar neurtzan sarituak izan diranen dei, eta erezi sarituen irakurtza emateko.

Sarituen artetik iruditegira agertuak izan ziran, Emiliano Mujika eta Joñe Elizondo jaunak; aipamen onrragarriya zutenak berriz; Ramon Gelbenzu eta errenkada oen egillia. Toribio Alzaga jaunak irakurri ondoren au bera egin zuten Elizondo eta Mujika jaunak, ondoren sarriyak jasua izan zitezen jabetzat beren buruak ezangutzen zituztenak.

Testimoniyo faltua izan zan sari emaitza eta irakurtzaren ondoren iruditegiyan ezagun araziya izan zana, Federiko Larman, Antonio Irastorza, Pablo Kasal, amalau urteko galai gazte gaya, Felipe Kasal, Rosario Artola, Ramon Gelbenzu eta Ramon Echebesté gandik. Guztiyak egin zuten beren sayua chit goi goiko mallara igorik; batez ere, Artola, Pablo Kasal. Larman, Irastorza... bañan gertarako jarraitu esaten banaka, guztiyak, maisutasun aundiyagorik arkitu ez litekien gisan jardun bazaran bakoitza bere gayetan?

Antzokiyan gau ortan arki zan jendiak, chalo ugariyak egin zizkaten oei, eta Ramon Illarramendi jaunari, abalizketa eder onen egille euskaldun zintzo, eta Errenteri-ar jatorrari.

Remigio Peñak egin zuben kantuzko sayua, chit chalokatua izan zan. ¡Ai; ura eztarri ederra! ¡Eta zer kantari egokiya! Zer nai gauza egin du bere eztarri borondatezkuakin, Esnaola jaun kantaritalde Donostiarraren, pianoz laguntzeakin; onek ere lendandik dakigun bezela, guztiz maisutasun aundiz lagundu ziyon, ekintza guztiya legun ateratzen.

Eta, gzer esango det kantaritalde Donostiarragatik? Gai au neurtzeko nere jakinduriya chit urriya dala, bañon aditzera detanez ontan jakintsu diranetatik, Esnaola jaunak makilla chiki batekin, guztiz malla goitsura igorik artezpetu zituela, eta irabazi zitubela chalo ugariyak. *Bañan, gzein nai?...* ¡Zer farrak zer farrak egin bear dituben beorren osabak onera etortzen danian!

Gai farragarritzko jostirudi au ere, bigarren aldiz iruditegiratua izan

arren, berriz ikusteko zaleturik gelditzen da jendia. Pepe Artola, Federico Larman eta Antonio Iraztorza; ona iru gorputz sendo, bat, egiten dutenak jostirudi polit farragarri ontan. ¿Nor aritzen dan obetuago, esaten chit salla da, zergatik bakoitzak bere gayari eltzen diyon osoro gogor; iruditegirako maisu bikaiñ, bikañak dira irurak. Eta, Felipe Kasal, Ramon Echebeste, Ramon Gelbenzu eta Eginu jaunak ¿noizko usten ditut, beren borondate aundiz chit ondo egin bazuten ekintza guztiya? Oek ere, chalo ugariyak irabazi zituzten gau artan guztiyan. Bañan, ¡Zer farrak, zer farrak!... egin zituben gau artan antzokiratu zan jendeak, Marzelino Soroa zanaren jostirudi. *Bañan, ¿zein naiñ ni?-rekin.*

Arraltsaldeko gisan, bertsolariyak eman ziyoten gau artako jai aldi-yari ere bukaera chalo aundipean, eta aundiyaguak irabazi dituzte aurtan, Euskal itz jostaldien Batzarreak eta beti chalokatua izan oi dan Euskaldun Fedeak. Beste bat arte, jaunak.

JUAN IGNACIO URANGA




ANTZEKI ZARRA

IRAKURGAI DONOSTIARRA

(*Aurtengo euskal-indar-neurtzetan saria irabazia.*)

DONOSTIYA, arresituba zegoen garayan, inguru guzietako uño ederra besterik etzan. Etziran oraingo eche galantak orduko echeak; batzuek ordia, beren ertzian, arresi edo *muralla* laurka, luze, t'urrutaba ezagutu zuten, t'arresiya triskatu ezkeroztik ta bere zaborrak



ayenatu, eche berri-taldeak itzalpean dauzka lengo eche zarrak, t'eztira aitzaki gabeko berezipenak *Donosti zar* ta *Donosti berri*, bertako bizilariyak aipatzen dituzten atalak.

Donostiarren irudimen somagilleak, beñere nagi eztagoen almenak lez, asmatu ditu beste zatiak : *Donostiya*, gizontelupeko arkaitzetatik *Bulevar*-eraño zabaltzen dan bitarteari izentzat ipiñi diyo : *San Sebastián Bulevar*-etik *Avenida* deritzayon ibildegia eder ta zabalerano dagoenari: *Guadalajara* ibildegitik aruntz, Errondo ta Murrugarontz bitartetzen dan zatiyari.

Utzi ditzagun alde batera *San Sebastián* ta *Guadalajara*; t'esango dizkitzut, irakurlea, Donosti barren-barrengo jasocera bitzuek, uño zurriyaren kolkopekoak balira bezela, t'oyen zertzeladak orrastuko dizkitzut, bañan aldiaurrez oartzen dizut, neronen egatsak, ipui ta egiya naste, dariozkikenak izango dirala.

Asko maite det asnasa t'odola eman zizkidan erriya, ta balkamenik baneukake; t'agindariyen zotza esku-eskuan, enuke tarterik igarotzen utziko : gaurtik, Donostiya elitzake lengo uño erlatz eta kiskurtuba besterik izango, t'ez oraingo ego-zabala, azal berriya bota-ta, sarritan zapelaitza dirudiyen egaztiya.

Lengo Donosti zarrarentzat nere biyozketa goşuenak : onentzako nere ajola t'ardura, ta barren-barrenen darabilzkidan gogapenak, goral-diz ta beraldiz itşasoa deritzazkidanak, bildu ta gero zabaldu albani-tzazke, neronek emango nizkioke Donostiyari Zurriyola-rako ta *Koncha*-rako olatu berriyak, ez ordia asarre ta zalapartadaz arpegiya ebaintzen diyotenak, ondartzari muşu-ta-muşu dagiyotenak baño.

Luditarren aurreraspenak, orain abo-zabalez *civilización* deritzayon mutil moşollo orrek, etzuen errukimenik izan Donostiyatzaz : zarra zala-ta chimak atera zizkiyon; billosik utzi zuen, baña *fara-fara* zeto-rreren erri berriyakiko uste-onik etzuelako, Donosti zarra autatu zuen burutzat, t'onen lepondoari iratsi zizkiyon berriyaren izaera ta jaskera pichigarriyak.

Biar-biarreko lana zan!.....

Beti buru Donosti zarra!..... baña *civilizaciyuak*, *San Sebastián*-dik eta *Guadalajara*-tik, egoak ekarri dizkiyo lengo uño ederrari.

Asteko naiko.


I

Pelota-jokuba arresiko edo *muralla*-ko atari-aldez zegoen. Baña nork esan ziur non ote zan? Bai : guchi-gora bera, oraingo *calle Elcano*-tik bekoz. Arresipean zegoen, zuloan, ta goiko aldetik *Paseo del Hornabeque* zeritzayon ibildegiryak inguratzentzuen. Zugatz ederrak eta tantayak

baziran ibildegia ontan, ta naiko osto zeriote, edozeñeri abaro atsegiña eskeintzeko. Tarteka-tarteka isirileku botzuek. Egun batez, isirileku baten inguruan, lau mutil zeuden, asi-samarrak, amabi urtetik gorakoak.

Enuke esango aien berriyik izenez ta deituraz, izengoitiaz bai ordia. Ara emen aien ezizenak: *Laubegi*, *Karrakela*, *Acho* ta *Birikaš*. Eztet esango-re, edo *Pello-Espain*-en, edo *Matapan*-en edo *Iskimar*-en odol, taju eta zurrirakoak ote ziran, bañan aben griña ta bernagakoak zirala, gezur-aldeko esakuna ezta.

—Aizak, i, *Birikaš*: Ik baomendakik *prantzesez*. *Tito*-neko aldame-neko *prantzesez* luze, mudurri orrek erakusten omen dik..... I, nola esaten zayok katuari *prantzesez*?



Birikaš-ek etzuen aldi luzea autatu erantzupena emateko.

—Katuari..... moššš!

Acho-k *Karrakela*-k eta *Laubegi*-k algara eztanda egintzuten.

—Ta chakurrari?

—Chakurrari..... ũomaaa!.....

—Ta ginbeletari.....

—Ginpelet.....

—Chapelari?.....

—Ori erreza dek..... *Le chapóó*.

—Atiari?

—*Le port*.



—Ez. Ez. Urian ibiltzen dan ateari.

—A!..... *Le antzar!*

—*Cuerpo-guardi-yari?*

—Tatariiii!..... t'esanakin batez, itzulika joantziran *Hornabeque*-ko tartetik *Santa Catalina*-ko biderontz. Abiyada biziyan, dar dai baten antzera, eskutatu ziran; ta zer-tzala-ta alde egin?..... Zergatik zijoazen itzulika?..... Beste alderdi batetik, astin, pacharan, t'oinkadak astiro emanaz, aguzilla zetorren. Esango nuke beronen izena, baña eztet-nai ezerchore igartzia: orduko egunak, oraindik-ere, norbaitek goguan badauzka, garai artan bizi zalako, oroituko da, zein izan ote zitekean aguzilla, baldin zartzaroaren lakestasunak oroimena jan-ezpadiyo.

Ala zesan aguazillak, mutikoak itzulika ikusi zituenian:

—Bai, bai; batere ibilli gabe arrapatuko zai-tuztet. Enaiz zaldiya, zeon atzetik joateko, baña bai Donostiyako aguzillik bizkorrena.... Bai oiše! Eztaukat katazkik egin biarrrik, zuek arraparratzeko. Egunez ez, gabaz bai ordia, zeon echezuloan zurrungaka zautenian, arrapatuko zai-tuztet.....

Atera zuen sakeletik toša, ta bertatik jasotako *rape* mutur bat, zudur zuloetan ezarri zuen. Musu zapi gorri aundi batez astindu zituen mukitegiak, ta bere lanez busti zitzayon musuzapiya, borobil-borobil-egin-da, kolkoratu zuen.

Begiraka egontzan gero, onuntz t'aruntz, ezer gertatzen ote zan Donosti atariyetan, t'esango nuke, Rusiako Enperadoreak bere barrutiya baño arolago t'itzalago, uzmiatu zituela bazter ayek.

Ekarri zuen bidez joantzan: irichi zan *Puerta de Tierra* zeritzayon ataurre edo *portal*-era: an, larrinean zeuden aragi-arrapatzalleak agur egintziyoten, ta sartu zan Donosti-barrena, ate zar artatik. Atepeko Kristo-*Agoniya*-koari otoitz labur bat egintziyon, eta eskubi alderozko iturriyan, zerbait egin biarragatik atsedeen-egitia otu zitzayon. Etzan egin biarra; esan biarra, bai.

Orduanche irichi zan iturrira, buruan tangarta zuela, Joakina, emakume maratz t'aidorra, *Birikaš*-en ama.


—Aizazu, Joakina: orain-ere *zuen* mutil bardazka *eskolik* gabe. Etzaizu piperra urri izango echian!.....



—Birika kenduko diyot!..... Orain ere bai?..... Gezurra dirudi! ¡Au bizimodu gaiztoa darabilt mutil orrekin!.....

—Gañera esan biar dizut, *prosesiyatubak* daudela zuria ta beste iru.

—Baña, zer da ori?




—Kartzelara joango dirala.

—Zer egin dute, bada?

—*Desakatua* agindariyari.

—Zer da?



ez oztutzeagatik, chanuakin egoten naiz elizan. *Bikariyo* jaunak bayezkoa emant-zidan, t'inork ezin esan lezake, bide gabekua dala buruko estalki ya. Zure seme parden orrek, uste gabeko aldi batian, burutik chanu atera zidan..... Bota niyon makilla, t'iskanbilla izugarri bat bertan sortu zan..... Bai, bai, *desacato!*..... gañera gaba zan..... *nocturnidadia*..... eliz-barrenen..... *sacrilegiyua*..... batek ezpadiyo, bestiak biyurtuko diyo lepo biribil ura,.... Nere illarkiya anchen azaldü zan!.....

—Etzetorren gaizki, elizan *il-argiaa*.....

—Ez aldizu ajolik?.....

—Ajola bai..... Bañan jakin biar dezu.....

—Utikan!..... Emakume zuntzuna, alen zuntzuna!... Nik arrapatuko ditut...

(Jarraituko da.)


—Ara. Ikusten aldezu goiko leoya aboa-zabalik, beko antuñun aundi ortara ura botatzen?.....

—Bai.

—Orrek oso-osorik jango balituke, elitzayeke asko. Ain gaiztcak dira!.....

—Orrek eztitu jango. Mutillak bai, jango luteke leoya, gañozkoa balitz. Iza-tzik-ere eliyoteke utziko.

—Esate baterako aitortu dizut. Lau puzka egitea, ondo irab zi dute. Atzo, oitura dedan bezela, nere otoitzak egi-ten ari nitzan *San Vicente*-ko koropean. Zukdakizun bezela,



RAMÓN INZAGARAY

DESPUÉS de las FIESTAS EUSKARAS

GRATITUD

NADA hay más meritorio que el sacrificio y la abnegación; pero cuando ellas encuentran amparo, estímulo y protección en tal forma, que el triunfo más legítimo es á todas luces evidente, entonces el sacrificio ya no es más que deber; y la abnegación, estímulo amparador de virtudes. Amargos han sido no pocos días y horas atravesadas por el Consistorio de Juegos Florales, en este luchar constante por el ideal, ante cuyo altar quemamos y quemaremos mientras vivamos el más oloroso y puro de los inciensos; pero amargos y todo los hemos pasado, no con la misericordia que debe otorgarse al vencido, sino con la fe ciega del batallador, que solamente en su voluntad espera impávido el triunfo final de la batalla. Y así ha sido. El Consistorio de Juegos Florales de San Sebastian, si no con el boato y esplendor corporativo de otros años, ha cumplido en el presente su misión de fomentar el culto á nuestra personalidad étnica, filológica, literaria, pictórica, etc., vinculado en un mismo sentimiento con todo el pueblo donostiarra, y con el aplauso, adhesión y auxilio de los más ilustres patricios, cuyos nombres—muchos de ellos—enaltecen á su patria y á su pueblo desde elevados sitios.

Con la ayuda económica de éstos, ha conseguido abrir un Concurso y premiar á cuantos han descollado en ese torneo noble y culto del *gay saber*. Juntamente con el Concurso patrocinó, con la autoridad que su misma existencia le veda inhibirse, la función teatral que todos los años celebra el cuadro dramático Euskaldun Fedea el día de Santo Tomás, y cuantos asistieron—que fué un pueblo—pueden dar fe de cuanto allí ocurrió y del éxito nunca alcanzado que allí se obtuvo. Y

testimonio de la armonía y verdadero car las dos sociedades reina, mayor si cabe obrando con absoluta independencia económica respectivos, nada ha turbado en lo más mínimo de ambas sociedades.

Á todos, pues, desde las páginas de esta v Consistorio de Juegos Florales exterioriza su miento, muy en especial á esos nobles patriotas, tables é ilustres personalidades que, con su aliento echarlos al olvido, los llevaremos á la práctica en económicos nos permiten; nos han estimulado vivaplimiento del deber, hoy tan necesario como urgente, pueblo, un ideal y una patria, que el avance de una ci manece indiferente ante la más triste de las agonías.

He aquí los nombres á quienes el Consistorio de Juego todo amante de nuestra personalidad característica debe eteri

Excmo. Sr. D. Fermín Calbetón.

Sr. Conde de Torre-Múzquiz.

D. Manuel Lizariturry.

Excmo. Sr. Duque de Mandas.

Ilmo. Sr. D. Remigio Gandasegui.

Excmo. Sr. D. Joaquín Lizasoain.

Excmo. Sr. Conde de Churruca.

D. Luciano Abrísqueta.

» *José Sotero Echeverría.*

» *Juan Muñoa.*

» *Miguel Muñoa.*

» *José Abrísqueta.*

» *Javier Peña y Goñi.*

» *Tomás Balbás.*

» *Faustino Eguía.*

» *Ignacio Eguía.*

» *Isidoro Bengoechea.*

ALMANAQUES

del resurgir y expansión actual de nuestra idolatrada en los Almanques vascos para el año próximo, los que de lleno en las costumbres del país, siendo su adquisición para cuantos conservan puro y ardiente el amor á la los mayores.

esidad, tiende la noble iniciativa de la popular casa editorial o López; que si acreedora ha sido á la gratitud de los vascos oajos para extender y popularizar los estudios acerca de nuestra historia, corona dignamente su plausible obra con la publicación s euskérikos.

*
* *

«Egiya—1912».—Así se titula uno de los Almanques á que venimos Almanque de pared, que en su presentación compite ventajosamente editan en otras lenguas, y cuyo texto en euskera guipuzcoano, abarca otras religiosas y cuantos datos y noticias son de rigor en este género de es. Al dorso contiene variadisima, amena y entretenida colección de cuen- s y chascarrillos de puro y neto sabor vasco.

*
* *

«12'garren urterako Euzkel-egutegi txikiya».—Digno complemento del anterior e almanque de bolsillo, del que dice su autor :

«Erri denak, beren izkuntzetan egutegiak badituzte. Ta gu ez al gera erri oyek aña? La emen, ba, gure-guriak, ta gogo onez ar itzazute, euzkera zabaldu ta bere alde al egun guztiya azaldu nayaz egiñak diralako.»

Es un Almanque completísimo, cuya adquisición no dejaremos de recomendar, deseando muy de veras verlo en manos de cuantos tienen la fortuna de poseer nues- tra lengua y no son analfabetos.

* * *

«Calendario de las Provincias Vascongadas para el año 1912».—El clásico día de Santo Tomás, al son del también clásico tamboril, y al olor del no-menos clásico chorizo, se puso á la venta el más clásico de todos: «Calendario de las Provincias Vascongadas.

La Casa Baroja, popular y acreditado establecimiento editorial, celebrará el año que rige dicho Almanque, el centenario de su fundación. Lleva, pues, muchos años haciendo sudar tinta á las máquinas, y acreditado tiene el celo y esmero con que sabe presentar sus producciones.

Buena prueba de ello el actual Almanque, en el que se han examinado y rectifi- cado con minucioso y detallado cuidado, las modificaciones surgidas á consecuencia de la reciente supresión de días festivos.

Puede decirse, sin hipérbole, que cuanto se ha dispuesto por las autoridades de la Iglesia hasta la víspera de Santo Tomás, aparece clara y categóricamente en el Alma- naque.

Ya saben, pues, en caso de duda, adonde deben dirigirse :
Al «Calendario de las Provincias Vascongadas».